

'JERUSALEM OF GOLD' eta SALBATORE ERMITA

Jose Antonio Mujika



Duela gutxi albiste kurioso bat zabaldu zen egunkari eta telebistetan: 'Jerusalem of Gold' israeldar kanta ezagun eta ospetsuaren doinua euskal kanta baten kopia omen da! Etorri bezala joaten diren albiste horietako bat izan zen hura ere, baina hedabideetan ibili zen bitartean hamaika iritzi entzun zen gure artean. Gehienak pozik geunden, hori bai, eta harro, euskal musikari horrelako aitopena egiten zitzaiola ikusiz.

Albistearekin batera garai batean Erreteriarren ondo-ondoan zegoen ermita baten izena atera zen hedabide horietan. Xenpelarren bertso batzuetan aipatzen da ermita hori, Salvatore ermita, eta bertso horien musika omen da israeldar kantak kopiatu zuena. Horra, bada, ustekabea, Jerusalem eta Erreteriera lotuta albistegietan.

Naomi Shemer israeldar musikagile ospetsua da 'Jerusalem of Gold' –'Urrezko Jerusalem'– kanta ezagunaren egilea. 'Sei Eguneko' gerran egin zen ospetsu kanta hori, 1967an, bera abestuz sartu baitziren soldadu isareldarrak Jerusalem. Harrezkero, kanta nazional moduko zerbait bilakatu zen Israelen. Eta emakume musikari haren fama lehendik txikia ez bazen ere, orduan zeruraino igo zen.

Urtetan ukatu ondoan, hilzorian zela aitortu egin zuen emakumeak euskal kanta bat izan zuela inspirazio abesti hori egiteko. Gauza gehiago ere esaten zuen, adiskide bati idatzitako gutunean: 1960an entzun ziola lagun bati delako euskal kanta, eta, konturatu ere gabe, barrura sartu zitzaiola. Gero, 'Jerusalem of Gold' egitean, berez bezala atera zitzaiola barrendik melodia hori. Konturatu gabe, ordea, bistan da! Eta, gainera, kopia hutsa ere ez zela, beretik nota batzuk erantsi baitzuten. Eta, auskalo, musika hori asmatu zuen euskaldun ezezaguna judu konbertso bat izan zitekeela beharbada... Aitzakia gehiegitxo, aise ikusten denez. Baina tira, lasai geratu omen zen andrea azken orduan egia aitortuta.

Berehala hasi zen dema gure artean –nola ez!–, zein ote emakume hark entzun zuen zorioneko euskal kanta. Haur edo sehaska kanta bat zela zioten egunkari batzuek. 'Salvatore ermita' aipatzen duten Xenpelarren bertsoak zirela, beste batzuek, gorago esan dudan moduan. Paco Ibañezek abestutako kantaren bat zela, berriz, beste zenbaitek. Oskorri taldeko Natxo de Felipek, bere aldetik, doinu horrek R. M^o de Azkuek Aramaion bildutako kanta batekin zerikusia zuela iritzi omen zion –eta honek musikaz badaki zerbait–. Mikel Laboak ere ba omen du kanta bat aire horrekin...

Nork zuen arrazoi? Kasu honetan gehienek zuten egia zerbait.

Azkuek bildutako kanta 'Cancionero Vasco' bilduman ageri da. Kanta zaharra da, itxura guztien arabera. Gai klasikoa du: emazte ezkonberriari senarra hiltzen zaio ezkondu eta berehala, betiko alargun geratuz: *Bart amarretan dontzell[!]a nintzan, / amaiketako senarra, / gaueko amabi santuetako / gelditu nintzan bakarra. / Atsekabea, atsekabea, / andiago naigabea: / ordubeteko senarraigatik / alargun izan bearra!*

Zortziko nagusia da, 10-8ko lau puntu dituen. Bertsolariek maiz erabiltzen duten neurria da hori. Ez da harriztekoa, hortaz, askotan erabiltzea kanta zahar horretako doinua ere, zenbait aldaera gorabehera, neurri horretako bertsoak kantatzeko. Salvatore ermitako bertsoak ere musika horrekin –edo horren antzeko batekin– kantatu izan dira maiz.

Pako Ibañezek ere doinu horrekin abesten du *Pello Joxepe* ezaguna. Eta bertsio hori izan zen, hain zuzen, israeldar andreak lagun bati entzun bide ziona. Hori izan zuen zuzeneko iturria. Azken orduko aitopenaren berria zabaldu zenean, hain zuzen ere, Paco Ibañezen bideoa pasatu omen zuten Israelgo telebistan.

Horaino, bada, 'plagioaren' kontua. Gatozen, ordea, orain, hizpidea baliatuz, Xenpelarren bertsoetara. Egin dezagun mende eta erdiko saltoa atzera, eta ikus dezagun zer ikusi zuen behin Xenpelarrek Salvatore ermita

horretan. Antonio Zavala izango dugu gidari horretarako. Auspoa bildumaren 88-89-90 zenbakiak daramatzen 'Xenpelar bertsolaria' liburutik hartu ditut ondoren emango ditudan xehetasunak.

Hasteko, ermitari dagozkionak. Papeleraren beste aldean dagoen kasko batean omen zegoen ermita, gaur egun Juanita-enea etxea dagoen ondoan, Lizantzi baseritik gertu. Santiagoko erromesek hortik barrena omen zuten bidea: Irundik Lezora, hemendik Herrerara txalupaz, eta hurrera Donostiara joaten omen ziren. Ermita txikia zen, baina oso ezaguna omen zen Igoakunde egunean han egiten zen erromeria. Oiartzungoa izan arren, Errenteriatik gertuago dago leku hori, eta errenteriarrek joera handia omen zuten erromeria hartara joateko. Festa politak egiten omen ziren ermita eta Errenteriarren artean zegoen zumardian, gaur papelera dagoen tokian.

Karlistadetan istilu handiak izan omen ziren ermitaren inguruan. Haietako batean ermitak su hartu eta hondatua geratu zen. Erromeriak aurrera jarraitu zuen, halaz guztiz, ondoko urteetan ere. Errenteriarrek ermita beren kontu berritzeko asmoa hartu zuten, baina oiartzuarrek ez zuten nahi izan. Oiartzungo bikario zaharrak honela esan omen zuen: "Gazteek ez dute hor pikardia besterik ikasiko!". Ez zen, bada, berritu. Pena handia hartu omen zuen jende zaharrak, baina bere hartan egon ziren pareta zaharrak urte askoan. Azkenean, harri haiek baliatuz etxe berri bat egin omen zuten Errenteriako partean. Salvatore izena jarri zioten etxeari.

Ermita horretan gertatu zen Xenpelarrek urte batean ikusi eta ironia handiz kontatzen diguna 16 bertsotan. Lehenbiziko bertsoan berean ematen digu pasadizoaren irudi bizia. Hone-l du amaiera bertsoak:

Azentziyoz zan erromeri bat
ermita txiki batian,
bi damatxo an ikusi ditut
ezin pasarik atian.

Besteri eskatutako buelo handiko arropa dotoreak jantzita joanak ziren dama bi haiek erromerian luzitzera, eta han ibili ziren gaixoak 'ezin pasarik atian'. Argazkiaren polita! Ezkongaiak zirela esaten digu Xenpelarrek, eta irri antzean eransten du 'majo on bana' eskatzera joanak zirela erromeriara. Deskripzioak aurrera jarraitzen du, irri artean:

Eleiza ortako pasada eginda
eseri ziran soruan
beren burubak errespetatzen

aundimandiyen moduan;
abanikurik zuten edo ez
orain ez daukat goguan,
zikiñ mantxarrik etzan arkitzen
oriyen belar onduan.
Zapatatxuak txabolezkuak,
sedazko soiñak gorriyak,
lasaitasunak galdu ez ditzan
kortsiatubak gerriyak;
dremantezko belarrikuak,
begi engañagarriyak,
buruban berriz pañolituak
frantzes moduan jarriyak.

Irri eta burla moduko deskripzio horrekin ez du Xenpelarrek nesken apaindu nahia oro har kritikatzeko. Neurritz kanpo eta barregarri ibiltzeari egiten dio burla, horrek dakarren kaltea gogoratuz:

Galaz beteta ikusi ditut
erromeriyen bi dama,
eleizarako erropa gabe
etxian aita ta ama;
zori gaiztuan sortu ziraden
alajak eta kabana,
banidadiak familiara
errenta gutxi darama

Birian topo egin nituben,
esan niyoten "Ariyo!",
korresponditu zuten ez dakit,
juan ziraden seriyo;
bati beiñepein gorputz guztitik
sedatu-zinta dariyo,
oiek guztiak kendu ezker
koarto bat ez du baliyo.

Eta, nola ez, azkenerako 'moraleja':

Jantziya bere errespetuan
artu dezagun egoki;
orra nik esan nola bihar dan,
iñork ez baldin badaki,
banidadiak engañatuta
gero ez dediñ erruki:
gorputzak ez du gala biarrik,
anima garbi eduki.

Bertso-paperetan zabaldu zituen Xenpelarrek bertso hauek ere, eta aski ezagunak ziren errenteriar zaharren artean. Umorez abesten zituzten.

Jerusalem eta Errenteria ustekabez lotu dituen israeldar kantaren pasadizoak eman dit bertso horiek berriro gogoratzeko aukera. Gehiago jakin nahi duenak aski du gorago aipatu dudako Antonio Zavalaren liburura jotzea. Ez da aspertuko.